Felipe Perea Molinuevo jaunari obra baimena eman zitzaion alkatearen 2009ko abuztuaren 27ko 261/2009 Dekretuaren bitartez.

Hirugarrena.- Hasierako onarpenari buruzko erabakia hartu aurretik udal arkitektoak 2011ko abenduaren 22an emandako txostenean, honakoa dator:

"Gaur egun etxea udalerri eremuan balio kulturala duen ondasun higiezin gisa katalogatuta dago, eta 160 zenbakia dauka arau subsidiarioetan. Aurkeztutako agirien arabera, igarotako denborak eragina izan du kanpoko konfigurazioan. (Jatorrian lauki formakoa zen gutxi gorabehera, nahiz eta denboran zehar eranskinak gehitzen joan diren, eta hasiera bateko konfigurazioa nabarmen aldatzen joan da).

Horren ondorioz, nire iritziz, ez dago eragozpenik arauen aldaketa puntuala onartzeko."

Hau da, udal arkitektoak ez zuen aipatu ez emandako baimena, ez obrak ordurako gauzatuta zeudela. Udaleko idazkariak 2012ko urtarrilaren 9an emandako txosten juridikoan ere ez dira aipatzen gauzatutako berreraikitze obrak.

Azaldutakoa ikusita, edukizko aldaketa hori ezinezkoa da, ez dagoen ezer nekez deskatalogatu baitaiteke. Hori dela eta, bidezkoa da espedientearen izapidetzea ezestea; dena den, kultura ondarearen babesaren esparruan eskuduna den organoak neurriak har ditzake kultura ondarea babeste aldera.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Ezestea Gaubeako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketari buruzko espedientearen izapidetzea. Bovedako Real kaleko 34 zenbakian dagoen eraikina deskatalogatzearen gainekoa, hain zuzen ere, da aldaketa hori.

Bigarrena.- Gaubeako Udalari adieraztea arau subsidiarioen agirian ageri den ondasun higiezin babestuen zerrenda aldatu beharko duela, hau da, 160 zenbakiko fitxa kendu eta orri berria Aldundiari igorri.

Hirugarrena.- Gaubeako Udalari jakinaraztea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 218. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, Bovedako Real kaleko 34 zenbakian dagoen eraikinean gauzatutako jarduna ez datorrela bat indarrean dagoen hirigintza arloko legezkotasunarekin. Horrenbestez, neurri egokiak hartu beharko ditu, legezkotasun hori lehengoratze aldera, eta Aldundiari jakinarazi egindako jardunak.

Laugarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Bosgarrena.- Administrazio bidea agortzen duen ebazpen horren aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu ondoko egunetik kontatzen hasita, EAEko Auzitegi Nagusiaren jurisdikzio horretako salan.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 26a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

La licencia de obras le fue concedida a D. Felipe Perea Molinuevo mediante decreto de la alcaldía nº 261/2009, de 27 de agosto.

Tercero.- En el informe previo al acuerdo de aprobación inicial emitido por la arquitecta municipal, en fecha 22 de diciembre de 2011, se dice lo siguiente:

"Actualmente la casa está catalogada como bien inmueble con valor cultural en el ámbito municipal, con el número 160 en las Normas Subsidiarias. Según la documentación presentada, el paso del tiempo ha afectado a la configuración exterior de la edificación. (Su forma original era aproximadamente cuadrada, si bien, a lo largo del tiempo se le han ido añadiendo anejos que han modificado sensiblemente su configuración inicial).

En consecuencia y en mi opinión, no existe inconveniente en aprobar la Modificación Puntual de las Normas."

Es decir, la arquitecta municipal no hace alusión alguna a la licencia concedida ni al hecho de que las obras ya están ejecutadas. Tampoco en el informe jurídico emitido por el Secretario del Ayuntamiento el 9 de enero de 2012 se hace mención alguna de las obras de reedificación efectuadas.

A la vista de lo expuesto nos encontramos ante una modificación de contenido imposible, ya que difícilmente se puede descatalogar algo inexistente. Es por ello que procede la denegación de la tramitación del expediente, sin perjuicio de las medidas que en materia de protección del patrimonio cultural pudiera adoptar el órgano sectorial competente.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Denegar la tramitación del expediente de modificación de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valdegovía, referente a la descatalogación del edificio sito en la calle Real nº 34 de Bóveda.

Segundo.- Manifestar al Ayuntamiento de Valdegovía que deberá modificar el listado de bienes inmuebles protegidos que obra en el documento de Normas Subsidiarias, eliminando del mismo la ficha nº 160, y remitiendo a esta Diputación la hoja modificada.

Tercero.- Poner en conocimiento del Ayuntamiento de Valdegovía, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 218 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, que la actuación ejecutada en el edificio de la calle Real nº 34 de Bóveda no se ajusta a la legalidad urbanística vigente, por lo que deberá adoptar las medidas oportunas en orden a la restauración de dicha legalidad, comunicando a esta Diputación las actuaciones llevadas a cabo.

Cuarto.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Quinto.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 26 de octubre de 2012.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

5990

**480/2012 FORU AGINDUA, urriaren 19koa, Gaubea udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 15. aldaketari buruzko espedientea behin betiko onartzen duena.**

AURREKARIAK

Lehenengoa.- Gaubeako Udalak, 2012ko urtarrilaren 27ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion planeamenduko arau subsidiarioen 15. aldaketari buruzko espedienteari, bai eta espediente hori jendaurrean jartzeari ere. Azken horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOn (2012ko otsailaren 17a, 20 zk.), El Correo egunkarian (2012ko otsailaren 23an) eta udal iragarki taulan. Era berean, eragindako administrazio batzarrari ere jakinarazi zitzaion.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

5990

**ORDEN FORAL 480/2012, de 19 de octubre, aprobación definitiva del expediente de 15ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valdegovía.**

ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Valdegovía acordó, en sesión del día 27 de enero de 2012, aprobar inicialmente el expediente de la 15ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 20, de 17 de febrero de 2012, en el periódico "El Correo" de 23 de febrero de 2012, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y notificación a la Junta Administrativa afectada.

Bigarrena.- Jendaurreko informazio aldian, ez zen alegaziorik aurkeztu; beraz, udalak, 2012ko martxoaren 30eko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Hirugarrena.- Gaubeako Udalak espedientea bidali zuen aldundiak behin betiko onar zezan (sarrera erregistroaren data: 2012ko uztailaren 13a). Ondoren, 2012ko uztailaren 31n, dokumentazio osagarria eskatu zitzaion eta udalak 2012ko abuztuaren 20an igorri zuen eskatutakoa.

OINARRIAK

Lehenengoa.- Espedientearen helburua da planeamenduak zehaztutako lerrokadura aldatzea Karkamuko herriguneko 73 zenbakiko lurzatian, araudiaren146. artikuluan xedatutako hau betetzeko:

"Lerrokadura erabilera publikoko bide edo espazio libre publikoetarako lurzoruen eta lurzati eraikigarrien arteko muga ezartzen duen lerroa da, planeamenduan finkatua. Eraikinak dituzten lurzatietan, lerrokaduraren beste definizioren bat egon ezean, honakoa izango da lerrokadura: lurzatia ixten duen lerroa edo aurreko muga osatzen duen (hala dagokionean) eraikinaren fatxadaren lerroa."

Arauen agirian jasotzen den lerrokaduraren lerroak bide publikora ematen duen fatxadaren zati bat mozten du, eta, beraz, eraikinaren zati baten egoera ez dator bat planeamenduarekin.

Bigarrena.- Aldaketaren arrazoia agiriaren 0.2 puntuan dago jasota. Bertan adierazten denez, badago beste eraikin bat lurzati berean, eta haren fatxada planoan marraztuta dagoen lerrokadura marratik ateratzen da. Hala ere, fatxada hori salbuetsita dago marrak eraikina ukitzen duenean iskintxo egiten duelako. Beraz, ez du zentzurik 73 zenbakiko bi eraikin horiei tratamendu bera ez emateak.

Hirugarrena.- Udal arkitektoak emandako txostenak honakoa dio:

"Aurkeztutako agirien bidez, 10 zenbakiko poligonoko 73 lurzatiaren iparraldeko lerrokadura aldatu nahi da, E3 eraikina haren barruan gera dadin, lurzati bereko E2 eraikinarekin gertatzen den moduan.

Aurrekoan oinarrituta, uste du ez dagoela eragozpenik aldaketa puntuala onartzeko

Laugarrena.- Proposatutako aldaketa Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 56.1.h) artikuluan kokatzen da, hirigintza antolamendu xehatuaren erabakien artean lerrokadurak eta sestrak finkatzea jasotzen baitu.

Arabako Foru Aldundiaren eskumeneko hirigintza legezkotasunaren kontroletik abiatuta, ezin zaio eragozpenik jarri aurkeztutako proposamenari, Gaubeako Udalarena besterik ez baita hiri lurzoruan sestrak finkatzeko eskumena. Bestalde, ez da bidegabekeriarik antzematen hartutako erabakian.

Horregatik, dagozkidan ahalmenez baliatuz, honakoa

XEDATU DUT

Lehenengoa.- Behin betiko onartzea Gaubea udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen 15. aldaketari buruzko espedientea, Karkamuko 10 poligonoko 73 lurzatian dagoen E3 eraikinari eragiten dion zatian bide lerrokadura aldatzeari buruzkoa.

Bigarrena.- Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau jakinarazten edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 19a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko Foru diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

Segundo.- Durante el periodo de información pública no fue presentada alegación alguna, por lo que el Ayuntamiento procedió, en sesión del día 30 de marzo de 2012, a aprobar provisionalmente el expediente.

Tercero.- El Ayuntamiento de Valdegovía remitió el expediente para su aprobación definitiva con fecha de entrada en Registro de esta Diputación de 13 de julio de 2012, solicitándose documentación complementaria en fecha 31 de julio de 2012, la cual fue remitida por el Ayuntamiento en fecha 20 de agosto de 2012.

FUNDAMENTOS

Primero.- El expediente tiene por objeto modificar la alineación definida por el planeamiento en la parcela nº 73 del núcleo de Cárcamo, con el fin de dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 146.1 de la normativa que establece lo siguiente:

"Alineación: es la línea señalada por el planeamiento para establecer el límite que separa los suelos destinados a viales o espacios libres de uso público, de las parcelas edificables. En las parcelas ya edificadas, y en ausencia de otra definición de la alineación, se considerará como tal la línea del cerramiento de la parcela o de la fachada del edificio, en su caso, coincide con el lindero frontal."

La línea de la alineación recogida en el documento de Normas corta parte de la fachada que da frente al vial público, por lo que una porción del edificio queda en situación de disconformidad con el planeamiento.

Segundo.- La justificación de la modificación viene recogida en el punto 0.2 del documento, donde se señala que en la misma parcela existe otra edificación cuya fachada sobresale de la línea de alineación dibujada en el plano y que, sin embargo, queda salvada por el quiebro que efectúa la línea en su contacto con la edificación, por lo que carece de sentido no darle el mismo tratamiento a ambos edificios de la parcela nº 73.

Tercero.- En el informe emitido por la arquitecta municipal se dice que:

"Con la documentación presentada, se pretende modificar la alineación en la zona norte de la parcela 73 del polígono 10, de forma que el edificio E3 quede dentro de la misma, del mismo modo que ocurre con el edificio E2 de la misma parcela."

En base a lo expuesto estima que no existe inconveniente en aprobar la modificación puntual.

Cuarto.- La modificación planteada se incardina en el artículo 56.1.h) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, que incluye la fijación de alineaciones y rasantes entre las determinaciones de la ordenación urbanística pormenorizada.

Desde el control de la legalidad urbanística que compete a la Diputación Foral de Álava no cabe efectuar objeción alguna a la propuesta planteada, ya que la fijación de alineaciones en suelo urbano entra dentro del campo competencial exclusivo del Ayuntamiento de Valdegovía, sin que, por otra parte, se observe la existencia de arbitrariedad en la decisión adoptada.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Primero.- Aprobar definitivamente el expediente de la 15ª modificación puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento del municipio de Valdegovía, relativo a la modificación de la alineación a vial en el tramo que afecta al edificio E3 ubicado en la parcela 73 del polígono 10 de Cárcamo.

Segundo.- Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Tercero.- Contra la anterior resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la notificación o publicación de la misma, ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 4 de septiembre de 2012.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.